

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko diru-laguntzetarako deialdiaren oinarriak

Besteak beste hauxe erabaki zuen Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza kontseiluak 2016ko urriaren 4an: Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko diru-laguntzetarako deialdia eta horren oinarriak onestea.

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 0110.1722.47107 partidan "Eskola-baratzeetarako diru-laguntza" 15.000,00 euroko zuzkidura dago 2016 eko ekitaldiko laguntza deialdiak berekin dakartzan betekizunei aurre egiteko.

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da nortasun juridikoa duten Gasteizko irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateei diru-laguntzak ematea, 2017an Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoaren alorreko herritar ekimenak garatzeko.

2. Ekimenek bete beharreko betekizunak diru-laguntza jasotzeko

Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoaren alorreko herritar ekimenak garatzeko proiektuek jaso ahalko dute diru-laguntza. Herritarrek alor horretan parte hartzea eta gizartea ingurumen-hezkuntzan eta kontzientziazioan inplikatzeko laguntzea lortu nahi da ekimen horien bidez.

Gauzatzeko epea: 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egiten diren ekimenak baino ez dira diruz lagunduko.

Gauzatzeko eremua: Gasteizko udalerrian egiten diren ekimenak baino ez dira diruz lagunduko.

Ekimenek ez dute ekarriko zuzeneko merkataritza etekin komertzialik pertsona eta entitate onuradunentzat.

3. Hartzaileak

Nortasun juridikoa duten Gasteizko irabazi-asmorik gabeko gizarte eta auzo elkarte eta entitateak izan daitezke onuradunak, betekizun hauek betetzen badituzte:

- Egoitza Gasteizko udalerrian izatea.
- Garatu nahi duten hiri-nekazaritzako proiektua irizpide ekologikoetan oinarrituta egotea.
- Jarduera horiek egiteak 2017an gastuak ekartzea –fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak–, hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerari estu-estu lotuak. Honako hauek joko dira jarduerarekin zerikusia duten gastutzat:
 - a. Nekazaritza edo basozaintzarekin lotutako ikastaroak, hitzaldiak eta lantegiak antolatzea.
 - b. Nekazaritza nahiz basozaintza heziketa edo zabalkundearekin ikuspuntutik jorratzen dituzten dokumentuak –paperezkoak nahiz digitalak– erostea.

c. Ekimenarekin lotuta parte-hartzea dinamizatu eta sustatzeko jarduerak.

d. IGlko teknikarien iritziz horien parekotzat jo daitezkeen bestelako gastuak.

– Diru-laguntza jasotzen duten elkarte eta entitateek behar den informazioa eman beharko dute, eta beharrezkotzat jotzen bada, nekazaritza ekologikoko ekimena garatzen ari den edo garatuko den lekura sartzen utzi IGlko teknikariei, aurkeztu dituzten fakturak eta horiekin lotutako proiektuak bat datozen egiaztatzerik izan dezaten.

– Elkarte bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahalko du.

4. Aurrekontu zuzkidura eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 0110.1722.47.107 partidan bada aski krediturik: 15.000,00 euro.

Diruz lagundutako zatia ez da aurkeztutako proiektuaren aurrekontu osoaren % 80tik gorakoa izango.

Baldin eta diru-laguntza horietarako dagoen aurrekontuak ez badu aukerarik ematen onartzen diren eskabide guztiek aurkeztutako gastuak estaltzeko, hainbanaketa egingo da proiektu guztien artean, eta diruz lagundutako ehunekoa murriztuko, harik eta dagoen aurrekontuarekin aurre egin dakioken kopurura egokitu arte.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak izango dira ekimen bera gauzatzeko eskuratzen diren beste batzuekin. Dena den, eskabidea egitean, aurkeztutako proiekturako eskatu, jaso edo aurreikusitako bestelako diru-laguntzak adierazi beharko dira. Helburu berei erantzuteko beste diru-laguntzarik jasoz gero, oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak egokitzerik izango da, beharrezko denaz gaindiko finantziatorik izan ez dadin.

Elkarren arteko lehia baliatuko da diru-laguntzak emateko prozedura gisa. Ezer baino lehen, proiektuak balioetsiko dira, oinarri hauetan ezarritako irizpideak kontuan harturik. Prozeduran kontuan hartuak izan daitezten, proiektuek 50 puntu lortu beharko dute gutxienez. Beraz, puntuazio hori lortzen ez duten proiektuak laguntzak banatzeko prozesutik kanpo geratuko dira eta, horrenbestez, ez dute diru-laguntzarik jasoko.

5. Aurkeztu beharreko agiriak

Udal erregistroan edo herritarrei laguntzeko bulego batean aurkeztu behar du diru-laguntza eskabidea.

Agiri hauek aurkezten behar dira:

– Eskabidea, elkarte edo entitateko lehendakariak aurkeztua (I. eranskina).

– Eskaria izenpetzen duenaren ordezkaritza-ahalmenaren egiaztatzea, eta nortasun-agiriaren fotokopia.

– Proiektuaren memoria, aurrekontu xehea barne, deialdi honetako II. eranskinean ageri den eskemaren arabera. Proiektua baliosteko, memoriak alderdi hauei buruzko informazioa jaso beharko du gutxienez:

a. Proiektuak deialdiaren helburuei egiten dien ekarpena. Oinarriak, helburuak, hartzailak, jardueren deskribapena eta garapena, ebaluazio-proposamena.

b. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa. Metodologia, garatzeko faseak, antolakuntza eta aurrekontua.

c. Proiektua bistartzeko plana: metodologia, komunikaziorako bide eta baliabideak eta proiektuaren zabalkundea.

d. Proiektuaren oihartzun potentziala.

e. Proiektuaren berritasuna eta sormena.

f. Proiektua beste eremu batera hedatzeko ahalmena.

– Elkarteak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, eskumena duen zerga administrazioak emana, eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, Diruzaintza Nagusiak emana, edo bere kargura langilerik ez dituelako aitortpena. III. eranskina.

– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 3. artikuluetan jasotako egoeretako batean ere ez daudela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena. IV. eranskina.

– Proiektu bera udalaren beste sail batzuen diru-laguntza deialdietara ez dela aurkeztu adierazteko erantzukizunpeko aitortpena. V. eranskina.

– Dena delako erakundeak administrazio honekiko zerga betebeharrak beteak dituela egiaztatzen duen agiria eskatuko dio Gasteizko Udalak Kontu-hartzailetza Nagusiari.

– Aurkeztutako eskabideen gaineko ebazpena albait egokiena izan dadin, beste agiririk ere eskatu ahal izango du Gasteizko Udalak.

6. Aurkeztutako agirietao akatsak zuzentzea

Eskabideak oinarri hauetan xedatutako baldintzak bete ezean, organo eskudunak errekerimendua egingo dio erakunde edo pertsona interesatuari, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan (epe hori ezin izango dela inolaz ere luzatu ohartarazita). Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua xedatutakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

7. Ebaluazio-organoa

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko organo bat osatutako da, kide hauekin:

a) Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaria edo hark ordeko izendatzen duen pertsona.

b) Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko bi teknikari.

Ebaluazio-organoak egingo du ebazpen-proposamena, oinarri hauetan adierazitako irizpideei jarraituz.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

Ondoren azaltzen diren irizpideak hartuko dira aintzat eskatutako diru-laguntzei lehenetasuna, baietza edo ezetza emateko; gutxienez 50 puntu lortu beharko dira halakorik eskuratzeko:

– Proiektuak deialdiaren helburuei egiten dien ekarpena. Oinarriak, helburuak, hartzaileak, jardueren deskribapena eta garapena, ebaluazio-proposamena. 25 puntu gehienez.

– Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa. Metodologia, garatzeko faseak, antolakuntza eta aurrekontua. 25 puntu gehienez.

– Proiektua bistartzeko plana: metodologia, komunikaziorako bide eta baliabideak eta proiektuaren zabalkundea. 25 puntu gehienez.

– Proiektuaren oihartzun potentziala. 10 puntu gehienez.

– Proiektuaren berritasuna eta sormena. 10 puntu gehienez.

– Proiektua beste eremu batera hedatzeko ahalmena. 5 puntu gehienez.

Deialdiaren ebazpenean, alderdi hauek zehaztuko ditu Gasteizko Udalak:

– Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

– Diru-laguntzaren izaera eta zein baldintzatan ematen den.

– Zer-nolako kontrol-bideak baliatuko diren, eta zenbatean behin.

9. Deialdiaren ebazpena

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak ebatziko du deialdia, hura baita organo eskuduna deialdia eta oinarriak tramitatzekeo prozedura onesteko; haren erabakiak administrazio-bidea amaituko du.

Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zerbitzu teknikoak izango dira prozeduraren organo instrukzio-egilea, Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 10.4 artikuluan aurreikusitako funtzioak betez.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 10.8 artikuluan xedatutakoari jarraituz proposamena egiteko organo eskuduna oinarri hauetan deskribatu den ebaluazio-organoa izango da, eta bertan zehaztutako osaera izango du.

Gehienez hiru hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta. Ebazpena ALHAOn argitaratuko da. Eskatzaileei egiten zaizkien ebazpenen jakinarazpenetan horien kontra aurkez daitezkeen errekurtsioak jasoko dira.

Gasteizko Udalak jakinaraziko die erakunde eskatzaileei diru-laguntza eman edo ukatu zaien, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak onetsi eta 10 egun naturaleko epean.

Erabakia hartzeko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik izan ez bada, laguntza-eskabideak ezetsi egin direla ulertu beharko da.

Ebazpen horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, BI HILABETeko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsioa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, HILABETeko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, BI HILABETeko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, errekurtsioa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, SEI HILABETeko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Onuradunetakoren batek diru-laguntzari uko eginez gero, diru-laguntzak eman dituen organoak prozesuan parte hartu duten gainerako proiektuen artean banatu ahalko du horri dagokion zenbatekoa, lortu duten puntuazioren arabera hainbanatuta.

10. Diru-laguntza ordaintzea

Emandako diru-laguntza honela ordainduko da:

– Diruz lagundutako zenbatekoaren % 80, diru-laguntza onartu eta hura emateko hitzarmena sinatu ondoren, oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

– Gainerako % 20a, proiektua egin izanaren justifikazioa aurkeztu ondoren; jarduera amaitu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu behar da hori, oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

Ezingo da diru-laguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ez eta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun bada ere.

Diruz lagundutako jarduerak eragindako gastuen justifikazioa aurkeztu eta ikuskatu ondoren egingo da ordainketa.

11. gastuak justifikatzea

Diru-laguntzaren onuradunek justifikazio-kontua aurkeztu beharko diote Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari diru-laguntza justifikatzeko, eta horretarako hiru hilabeteko epea izango dute, diruz lagundutako programa edo jarduera amaitzen denetik kontatuta.

Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da —ez Gasteizko Udalak emandako diru-kopurua bakarrik—, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta Udalari zein gasturen kostua egozten zaion zehaztu.

Justifikazio-kontuak hauek jaso beharko ditu:

— Egindako proiektuaren azalpen-txostena, lortutako emaitzen balioespena barne.

— Jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa. Xehetasun hauek jaso beharko ditu:

— Egindako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zehaztasun hauekin: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkitze data eta ordainketa. Horretarako, onuradunak lauki bat aurkeztu beharko du, non emandako diru-laguntzari dagozkion faktura guztiak kontzeptuaren arabera sailkatuko baitira.

— Diruz lagundutako jarduerari dagozkion jatorrizko fakturak, edo faktura horien kopia konpultsatuak, eta ordain-agiri horiek laguntzak xede duen helburua betetzeak sortu dituela egiaztatzeko agiria zein agiri horiek eskuragarri daudela egiaztatzeko agiria, VI. eranskinari jarraituz.

Jaso-izanaren agiriak beste modu batez egiaztatu ezin diren gastuak zuritzeko bakarrik onartuko dira, eta, edonola ere, jaso-izanaren agiria sinatzen duen pertsona ezingo da izan enpresaria edo profesionala, hala balitz faktura egin eta ematera behartuta bailegoke.

Jaso-izanaren agiriak datu hauek bildu behar ditu:

a. Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.

b. Eragiketa edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.

c. PFEZren atxikipena (Foru Ogasunean egindako ordainketaren agiria erantsi behar da).

d. Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Langileen gastuak nomina eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren TC2 agiriaren bidez justifikatu beharko dira. Nominekin eta TC agiriekin batera, gastua diruz lagundutako jarduerari dagokiola justifikatzen duen erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko da, egotzitako denbora eta kopuruak zehaztuta.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta.

— Diru-sarrera eta gastuen balantzea, VII. eranskinaren arabera.

— Diru-laguntza jaso duen jardueraren baitan egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.

Aurkezten diren fakturen edo agirien zenbatekoak, guztira, ordaindutako diru-laguntza osoa hartzen ez badu, edo diruz lagundutako proiektua gauzatzetik izan ez bada, Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari jakinarazi beharko zaio, eta dena delako diru kopurua Gasteizko Udaleko Diruzaintzara itzuli.

Ez da diru-laguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste diru-laguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako diru-laguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

12. Erakunde edo pertsona onuradunaren betebeharrak

Emandako diru-laguntza onartzea; horrek berekin dakar oinarri hauetan ezarritako betekizunak eta arauak onartzea. Hain zuzen ere, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso duten egunetik kontatuta hamabost eguneko epean onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egiten duela ulertuko da.

Pertsona edo entitate onuradunak diru-laguntza emango zaiola jakinarazten zaionetik hilabeteke epean sinatu beharko du hitzarmena, eta bertan diruz lagundutako proiektuaren baldintza zehatzak adieraziko dira.

– Finantzatutako jarduera burutzea, eta jasotako funtsak horretarako baliatzea, diru-laguntza emateko hitzarmenean adierazi bezala.

– Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari jakinaraztea.

– Helburu berarekin beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional nahiz nazioartekoren batek emandako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari jakinaraztea, baita zertarako baliatu diren ere. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri.

– Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egite aldera, eskatutako agiri guztiak eman behar zaizkio Udalari.

– Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea, oinarri hauetako hamalagarren klausulan ezarritako kontzeptuen arabera.

– Argi eta garbi adieraztea Gasteizko Udalaren diru-laguntza jaso dela —jarraibide teknikoak aintzat harturik eta ematen zaion logotipoa baliatuz— sortzen den material guztian: dokumentazioa; jardueraren web-orria, halakorik izanez gero; laguntzaren ondorio den prestakuntza-, informazio-, sustapen- eta publizitate-material oro, euskarria edozein delarik ere; aurkezpen, ospakizun eta ekitaldietan, eta bestetan.

Material horiek herritar orori zuzenduak badira, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira. Era berean, diru-laguntzaren xedea jarduera ireki bat baldin bada, hots, ikuskizun edo ekitaldi publiko bat antolatzen bada, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da horren zabalkundea.

13. Dirua itzultzea

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan —2005eko ekainaren 17ko osoko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena, eta 2006ko urtarrilaren 13an ALHAOn (5 zk.) argitaratu— xedatutakoaren arabera, entitate edo pertsona onuradunak itzuli egin beharko ditu jasotako diru-kopuruak, baldin eta:

– Eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza eskuratzea galaraziko zuketena ezkutatuz eskuratu bada diru-laguntza.

– Xedea, jarduera edo proiektua bere osotasunean edo partez betetzen ez bada, edo diru-laguntza ematea ekarri zuen jokabideari jarraitzen ez bazaio.

– Justifikatzeko obligazioa bete ez bada edo behar adina justifikatu ez bada, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta oinarri hauetan xedatutakoaren ildotik.

– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluko 4. idatz-zatian eta oinarri hauetako 43.ean jasota dagoenaren arabera egin beharreko zabalkundea ez egitea.

– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 15. artikuluetan finantzak aztertu eta kontrolatzeko aurreikusitako ekintzei aurre egin, aitzakiak jarri, enbarazu egin nahiz uko egin bazaie, edo kontabilitatearen, erregistroaren edo agiriak gordetzeko obligazioaren alorrean bete beharrekoak bete ez badira, baldin eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako funtsak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturengandik —dela estatuko, dela Europar Batasuneko— edo nazioarteko erakunderen batengandik.

– Gasteizko Udalak erakunde laguntzaileei eta erakunde nahiz pertsona onuradunei jarritako betebeharrak bete ez badira, baita horiek diru-laguntza eman zitzaientean beren gain hartutako konpromisoak bete ez badituzte ere, diru-laguntza ematerakoan oinarritzat hartu ziren helburuak lortzeko moduari, jarduera bideratzeko moduari, proiektua gauzatzeko moduari nahiz nork bereganatu beharreko jokabideari dagozkiorarik edo eragiten diotelarik.

– Gasteizko Udalak erakunde laguntzaileei eta erakunde nahiz pertsona onuradunei jarritako betebeharrak bete ez badira, baita horiek diru-laguntza eman zitzaientean beren gain hartutako aurrekoez beste konpromisoak bete ez badituzte ere, eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako funtsak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu bererako, batera, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk —dela Estatuko, dela Europar Batasuneko— edo nazioarteko erakunderen batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den.

– Europar Batasuneko Itunaren 87. artikulutik 89.era bitartekoetan xedatutakoaren ildotik itzultzeko beharra dakarren erabakia hartzen bada.

– Oinarri hauetan, aipatutako diru-laguntzen ordenantzan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta lege horren araudian (uztailaren 21eko 887/2006 Errege-dekretuak zehaztutako egoerak badira.

Erakunde zein pertsona onuradunak edo, kasua denean, erakunde laguntzaileak hartutako konpromisoak ia osotasunean bete dituztenean eta konpromiso horiek asebetetzeko egoki jardun duela egiaztatzen denean, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioak zehaztuko du itzuli beharrekoaren zenbatekoa.

Halaber, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 19. artikuluko 3. atalean adierazitako egoera egokitzen bada, itzuli egin beharko da diruz lagundutako jardueraren kostua gaintzen duen diru-kopurua, eta horri dagozkion atzerapen interesak galdatu ahal izango dira.

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan, Diru-laguntzen Lege Orokorrean eta horren araudian xedatutakora egokituko da diru-laguntza itzularazteko prozedura.

14. Arau-haustek eta zigorrak

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.

15. Aplikagarri den legedia

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kontuetan, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko Lege Orokorra, Herri Administrazioek emandako diru-laguntzei aplikatzekoa; ekainaren 19ko 7/1997 Legea, diru-laguntzen eta laguntzen erregimena arautu eta Euskal Herriko Herri-ogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legea aldatzen duena (1997ko uztailaren 16ko EHAA, 135. zk.), eta Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantza.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 17an

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria
IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ